



**2022ko PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA**  
-----  
**AITORTZAILEEN SEXUAN OINARRITUTAKO AZTERKETA**

## **1. SARRERA**

Txostenaren helburua da PFEZren ezaugarri nagusiak aztertzea eta beraien bilakaera azaltzea, aitortzaileen sexua kontuan hartuta.

PFEZren aitortzen datuak ustiatzea oso tresna baliagarria da, izan ere, tributu subjektibo eta pertsonala denez, informazio ugari biltzen du aitortzera behartuta dauden pertsonen buruz. Zergadunen ezaugarri pertsonal, ekonomiko eta fiskal nagusien deskribapen hori guztiz egokia da Gipuzkoako PFEZren emakume zergadunaren eta gizonezko zergadunaren "argazki fiskala" egiteko.

PFEZren ikuspegitik, errenta kontzeptua definitu liteke esanez dagokion zerga araudian ezarrita dauden etekinen, ondare irabazi eta galeren eta errenta egozpenen multzoa dela. Nahiz eta zergaren aldagai horiek ezin diren hartu behar errenta erabilgarriaren adierazle zehatzak bezala, inolako zalantzarik gabe esan daiteke baliagarriak gertatzen direla errentaren sexuen arteko azterketara hurbiltzeko. Hori bai, kontuan eduki behar da PFEZren aitortzen ez direla jasotzen sortzen diren errenta guztiak (esaterako errenta salbuetsiak), eta denak ez direla modu berdinean islatzen; adibidez, maila jakin batetik beherako lan etekinak kanpoan geratzen dira.

Txostenean PFEZaren aldagai nagusiak aztertu dira, betiere emakumeen eta gizonezkoen arteko desberdintasunak eta parekotasunak nabarmenduz.

Adierazle esanguratsu bezala, emakume eta gizonen arteko arraila kalkulatu dugu: errenten berdintasuna lortzeko zenbatean handitu beharko litzatekeen emakumeen errenta.



## **2. METODOLOGIA**

### **2.1. Aitortzaile kopurua**

PFEZaren aitortpena aurkezteko bi modu daude:

- Familia unitate bateko kide ez diren zergadunek banakako aitortpena egingo dute nahitaez.
- Familia unitate batean dauden zergadunek banaka tributa dezakete, nor bere aitortpena aurkeztuz. Dena den, batera tributatzea aukeratu dezakete familia unitateko kide guztien errentak metatuz.

Oro har, familia unitatea osatzen dute legez banandu gabeko ezkontideek eta izatezko bikoteko lagunek, bai eta, halakorik badago, adin gabeko seme-alabek eta judizialki ezgaituta dauden seme-alaba adindunek.

Era berean, senar-emazteak legez banantzen direnean edo ezkontza-loturarik nahiz izatezko bikoterik ez dagoenean, eta horri buruzko ebazpen judiziala eman denean, gurasoetako batek eta aurreko apartatuan aipaturiko baldintzak betetzen dituzten seme-alabek osatuko dute familia unitatea.

Txostenean zehar aitortzaile kopurua zehazterakoan honako irizpidea erabili da: aitortzaileak dira bakarrik zergaduna eta bere ezkontidea edo izatezko bikote laguna; inoiz ere ez familia unitateko gainerako kideak (seme-alabak) edota kenkaria aplikatzeko aukera ematen duten beste pertsonak (ondorengo ahaideak...).

Ondorioz:

- Banakako aitortpenetan, beti aitortzaile bakarra egongo da.
- Baterako aitortpenetan bi aitortzaile egongo dira, baldin eta ezkontidea edo izatezko bikote laguna badago.

## 2.2. Errenten banaketa

Banaka aurkeztutako aitortenetan ez dago inolako arazorik errentak banatzerakoan: aitortzaile bakarra dagoenez, errenta guztiak berari dagozkie. Gauza bera gertatzen da aitortzaile bakarra dagoen baterako aitortenetan.

Batera aurkeztutako aitortenetan bi aitortzaile daudenean (zergaduna eta ezkontidea edo izatezko bikote laguna) errentan horrela banatzen dira beraien artean:

- Lan eta jarduera ekonomikoetako errentak: bakoitzari berea egozten zaio.
- Kapitaleko errentak: bakoitzari aitorpenean aitortutako %50a egozten zaio.

## 3. AITORPENAK

### 3.1. Aitorpen kopurua eta bilakaera

2022ko ekitaldiko aitorpen kopurua 402.842 izan da, iaz baino %3,0 gehiago.

**1 taula. Aitorpen kopuruaren bilakaera  
2019-2022**


Ekitaldia	Kopurua	Bilakaera (%)
2019	385.134	
2020	385.004	-0,0
2021	390.988	1,6
2022	402.842	3,0

Aitorpen guztiak sailkatze aldera, sexua ezarri behar diegu guztiei. Banaka, familia unitatean sartu gabe eta ezkontide gabeko batera aurkezturiko aitorpenak, aitortzaile bakarrari dagozkie eta sexua ezartzeko garaian ez daukate arazorik. Aitortzailea eta ezkontidea

duen baterako aitortenak, aldiz, ezin dira bi aitorten homogeneotan zatitu. Baterako aitorten mota hau familiako sarrerak pertsona bakarrarenak direnean edo desoreka handiko errentak dituztenean erabiltzen da eta, ondorioz, lan edo jarduera etekin handiena duen aitortzaileen sexua ezartzen diogu PFEZaren azterketa sexuaren arabera egiterakoan.

Aitortenetan zergadunaren sexua aztertuz gero, lortzen diren emaitzak honakoak dira.

### 1 grafikoa. Aitortenak zergadunaren sexuaren arabera



Aitorten guztietatik %54,4n zergadun bezala gizonezkoa agertzen da, eta beste %45,6n emakumezkoa. Azken urteetako bilakaerak erakusten digu proportzioa nahiko egonkor mantendu dela.


### 2 taula. Aitortenak zergadunaren sexuaren arabera. Bilakaera 2019-2022

Sexua	2019	2020	2021	2022
Emakumezkoak	170.606	171.289	175.626	183.867
Gizonezkoak	214.528	213.715	215.362	218.975
<b>Guztira</b>	<b>385.134</b>	<b>385.004</b>	<b>390.988</b>	<b>402.842</b>
Emakumezkoak	44,3	44,5	44,9	45,6
Gizonezkoak	55,7	55,5	55,1	54,4
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Dena den, banaketa hori aitorten motaren arabera eginez gero, emaitza esanguratsua ateratzen da:

- Zergaduna emakumezkoa denean, %90,3 banaka aurkeztutako aitortenak dira, eta %9,7 batera aurkeztutakoak.
- Zergaduna gizonezkoa denean, banaketa zertxobait orekatuagoa da: %77,6 banakakoak dira eta %22,4 batera aurkeztutakoak.

## 2 grafikoa. Aitorpenen banaketa mota eta zergadunaren sexuaren arabera



## 3 taula. Aitorpenak, mota eta zergadunaren sexuaren arabera

Aitorpen mota	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Guztira
Banaka	166.002	169.830	335.832
Batera	17.865	49.145	67.010
<b>Guztira</b>	<b>183.867</b>	<b>218.975</b>	<b>402.842</b>
Banaka	90,3	77,6	83,4
Batera	9,7	22,4	16,6
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Aitorpen guztiak hartuta, %83,4 banaka aurkezten dira, eta beste %16,6 batera.

### 3.2. Baterako aitortpenak: familia biparentalak eta familia monoparentalak

Baterako aitortpenen barruan bi egoera sozial oso desberdinak ezkututzen dira:

- Familia biparentala: legez banandu gabeko ezkontideek edo izatezko bikoteko lagunek osatzen dutena. Hauetan egon daiteke errenta jasotzaile bakarra edo bi.
- Familia monoparentala: senar-emazteak legez banantzen direnean edo ezkontza-loturarik nahiz izatezko bikoterik ez dagoenean, gurasoetako batek eta adin txikiko seme-alabek osatzen dutena.

Batera aurkeztutako aitortpenak 67.010 dira; eta horietatik 15.693n zergaduna emakumea da (%26,7), eta beste 51.317n zergaduna gizonezkoa da (%73,3).


#### 4 taula. Baterako aitortpenak zergadunaren sexua eta familia motaren arabera.

Baterako aitortpenak	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Guztira
Monoparentalak	8.786	6.907	<b>15.693</b>
Biparentalak	9.079	42.238	<b>51.317</b>
<b>Guztira</b>	<b>17.865</b>	<b>49.145</b>	<b>67.010</b>

Familia motaren arabera, berriz, banaketa honelakoa da: 51.317 aitortpen (%76,6) familia biparentalek aurkeztutakoak dira, eta beste 15.693 (%23,4) familia monoparentalek aurkeztutakoak.

Beraz, baterako aitortpenen gehiengo nagusia gizonezkoek aitortutakoak dira eta familia biparentalek osatutakoak.


### 3 grafikoa. Baterako aitortpenen banaketa zergadunaren sexua eta familia motaren arabera



Baina zergadunaren sexua eta familia mota uztartuz gero, lortzen diren emaitzak adierazgarriak dira:

- Emakumezkoetan familia monoparentalak eta biparentalak ia berdinak dira (%49,2 eta %50,8, hurrenez hurren).
- Gizonezkoetan aldea 71,8 puntukoa da: familia biparentalak 85,9% eta monoparentalak %14,1.

### 4 grafikoa. Baterako aitortpenen banaketa zergadunaren sexua eta familia motaren arabera



Hori guztia kontuan hartuta, batera aurkeztutako aitorpenen ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

- Gizonezkoek aurkeztutako aitorpen ia-ia guztiak familia biparentalei dagozkio.
- Emakumezkoek aurkeztutako aitorpenen gutxi gora behera erdia (%49,2) familia monoparentalei dagozkio.
- Zergadun nagusia emakumezkoa den familia monoparentalen kopuruak (8.786) gizonezkoena (6.907) baino nabarmen handiagoa da.

### **3.3. Familia eredu aniztasuna**

Emakume eta gizonek osatutako bikote edo familia eredu tradizionalaz gain, sexu bereko ezkontide edo izatezko-bikoteen aitorpenak ere aurkeztu dira. Berauek aztertuz gero, ondoko datuak azpimarra ditzakegu.

Aitorpena aurkezten duten sexu bereko bikoteak 909 dira, hauetatik 503 bi emakumezko osatuak eta 406 bi gizonezko osatuak. Bikote hauek batera zein banaka aitortu dutenez, guztira 1.478 aitorpen aurkeztu dituzte, beraz, aitorpen kopuru osoaren %0,37a dira.

Bi emakumezko osatutako bikoteen 503 aitorpenetan, 95 bikotek batera aurkeztu dute eta 408 banaka. Banaka aurkeztu duten bikote horietatik, 348n kasuan bi bikotekideek aurkeztu dute aitorpena (696 aitorpen, beraz) eta beste 60n bikotekide bakarrak (bestea behartuta ez zegoelako, adibidez).





### 5 taula. Aitorpenak, familiaren sexu osakeraren arabera.

	Aitorpen mota		
	Batera	Banaka	Guztira
<u>Bikotea</u>			
Emakume-emakume	95	756	<b>851</b>
Gizon-gizon	120	507	<b>627</b>
Emakume-gizon	51.102	167.019	<b>218.121</b>
<u>Bikoterik gabe</u>			
Emakume	8.786	83.902	<b>92.688</b>
Gizon	6.907	83.648	<b>90.555</b>
<b>Guztira</b>	<b>67.010</b>	<b>335.832</b>	<b>402.842</b>
<u>Bikotea</u>			
Emakume-emakume	0,14	0,23	<b>0,21</b>
Gizon-gizon	0,18	0,15	<b>0,16</b>
Emakume-gizon	76,26	49,73	<b>54,15</b>
<u>Bikoterik gabe</u>			
Emakume	13,11	24,98	<b>23,01</b>
Gizon	10,31	24,91	<b>22,48</b>
<b>Guztira</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>

Bi gizonezko aurkeztutako aitorpenen kasuan, berriz, 120 bikotek batera aurkeztu dute eta 286k banaka. Banaka aurkeztu dutenenen artean, 221 bikoteren kasuan bi bikotekideek aurkeztu dute (442 aitorpen) eta beste 65ek bikotekideetako batek soilik.

### 6 taula. Sexu bereko bikoteak, seme-alabak dituzten arabera.

Bikote mota	Seme-alabak		Gabe		Guztira	
		%		%		%
<b>Emakume-emakume</b>						
Batera	42	44,2	53	55,8	95	100,0
Banaka	193	47,3	215	52,7	408	100,0
<b>Guztira</b>	<b>235</b>	<b>46,7</b>	<b>268</b>	<b>53,3</b>	<b>503</b>	<b>100,0</b>
<b>Gizon-gizon</b>						
Batera	34	28,3	86	71,7	120	100,0
Banaka	27	9,4	259	90,6	286	100,0
<b>Guztira</b>	<b>61</b>	<b>15,0</b>	<b>345</b>	<b>85,0</b>	<b>406</b>	<b>100,0</b>

Bestalde, 909 bikote horietatik 296k seme-alabak dituzte (%32,6). Bikotearen sexuaren arabera, ordea, diferentzia nabarmena da: emakumez osatutako 503 bikoteetatik 235ek haurrak dituzte, hau da,

%46,7k. Gizonez osatutako 406 bikoteetatik 61ek soilik aitortzen dute haurrak dituztela, %15,0k, hain zuzen ere.

Familia unitate biparentalen batez besteko oinarri ezargarria aztertzen badugu, zera ikus dezakegu:

- Jasotzaile nagusia gizonezkoa den bikote heterosexualen kasuetan batez besteko oinarri ezargarria 40.041 eurotakoa da; aldiz, jasotzaile nagusia emakumezkoa denean batez bestekoa %74koa da gutxi gorabehera, 29.444 euro; hau da, genero arraila -%26,5ekoa da.
- Bi gizonez osatutako bikote heterosexualen kasuan, batez besteko oinarri ezargarria 33.571 eurotakoa da, eta bi emakumez osatutakoena 27.670 euro. Aldea 5.901 eurotakoa da (-%17,6).

#### 7 taula. Batez beste oinarri ezargarria (eurotan) eta sexu arteko arraila


Bikote mota	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Arraila
<b>Bikote heterosexualak</b>	40.041	29.444	10.597 (-26,5%)
<b>Sexu bereko bikoteak</b>	33.571	27.670	5.901 (-17,6%)



#### 4. AITORTZAILEAK

Metodologia atalean zehaztutako prozedura jarraituta, aurkeztutako 402.842 aitortenetan 454.159 aitortzaile daudela ondorioztatzen da. Eta ondorengo grafikoan ikusten den bezala, sexuaren arabera banaketa oso orekatua da: %49,8a emakumezkoak dira eta %50,2a gizonezkoak.

#### 5 grafikoa. 2022ko aitortzaileen banaketa sexuaren arabera



2022ko Gipuzkoako populazioaren datuen arabera, 18 urtetik gorako biztanle kopurua 606.565 da; horietatik 313.748 emakumezkoak dira (%51,7) eta 292.817 gizonezkoak dira (%48,3).

Aitortzaile kopurua osoa 454.159koa denez, esan dezakegu Gipuzkoako biztanleen %74,9k (454.159 / 606.565) aurkezten duela PFEZ. Sexuaren arabera, berriz, emakumezkoen portzentajea pixka bat txikiagoa da (%72,0), eta gizonezkoena zertxobait handiagoa (%77,9).

Horren arrazoiak izan daitezke, alde batetik, ordaindutako lanetan emakumezkoen okupazioa tasa txikiagoa dela, eta beste alde batetik, emakumezkoek soldata txikiagoak dituztenez, emakumezko gehiago egotea aitortzeko betebeharraren azpitik.

#### 4.1. Aitortzaileen sexua eta egoera zibila


Aitortzaileen gehiengo nagusia ezkondua dago (%57,0), eta berdin gertatzen da emakumezkoetan (%56,3) nahiz gizonezkoetan (%57,6). Ondoren, ezkongabeak datoz (%29,4); eta hor emakumezkoen portzentajea gizonezkoena baino nabarmen txikiagoa da (%26,4 eta %32,4, hurrenez hurren).

Alderantziz gertatzen da alargunen kasuan; emakumezkoa alargunak (20.479) gizonezkoa alargunak (5.728) baino ia lau aldiz gehiago dira. Bananduen kasuan ere, emakumezkoak (13.019) gizonezkoak (11.217) baino gehiago dira.

**8 taula. Aitortzaileak sexua eta egoera zibilaren arabera**

Egoera zibila	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Guztira
Ezkonduak	127.289	131.390	258.679
Izatezko bikoteak	5.629	5.863	11.492
Ezkongabeak	59.623	73.922	133.545
Alargunak	20.479	5.728	26.207
Bananduak	13.019	11.217	24.236
<b>Guztira</b>	<b>226.039</b>	<b>228.120</b>	<b>454.159</b>
Ezkonduak	56,3	57,6	57,0
Izatezko bikoteak	2,5	2,6	2,5
Ezkongabeak	26,4	32,4	29,4
Alargunak	9,1	2,5	5,8
Bananduak	5,8	4,9	5,3
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

**6 grafikoa. 2022ko aitortzaileen banaketa sexua eta egoera zibilaren arabera**





## 4.2. Aitortzaileen sexua eta adina

Adinaren arabera banaketan ikusten da gizonezkoak nagusi direla hiru lehen tarteetan (hirugarrengoan (51 urtetik 64 urtera) orekatzen hasten dira), eta 65 urtetik gorako tartean, berriz, emakumezkoen presentzia dexente handiagoa da: 65.936 emakumezko eta 61.603 gizonezko.

**9 taula. Aitortzaileak sexua eta adinaren arabera**

Adin tarteak	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Guztira
<=30	16.879	19.329	36.208
31-50	79.503	82.280	161.783
51-64	63.721	64.908	128.629
>=65	65.936	61.603	127.539
<b>Guztira</b>	<b>226.039</b>	<b>228.120</b>	<b>454.159</b>
<=30	7,5	8,5	8,0
31-50	35,2	36,1	35,6
51-64	28,2	28,5	28,3
>=65	29,2	27,0	28,1
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

## 5. AITORTUTAKO ETEKINAK

### 5.1. LANEKO ETEKIN GORDINAK

2022an laneko etekin gordinak 385.634 pertsonak aitortu dituzte, eta horietatik 180.514 emakumezkoak dira (%46,8) eta beste 205.120 gizonezkoak (%53,2). PFEZn pentsioak eta aurreikuspen sistemetatik jasotako prestazioak lan etekinak dira.

Aitortzaile kopuru osoa kontuan hartuta, guztien %84,9k aitortzen ditu laneko etekinak. Sexuaren arabera, aldea nabarmena da: emakumezkoen %79,9k aitortzen ditu lan etekinak, gizonezkoen %89,9ren aldean. Horren arrazoiak izan daitezke:


- Emakumezkoaren presentzia ordaindutako lan merkatuan gizonezkoena baino txikiagoa da. Eustat-ek 2022rako egin zuen Biztanleria Jardueraren Araberako inkestaren arabera,

okupazio tasa %67,8koa izan zen, eta gizonezkoena, berriz, %75,2koa (16 eta 64 urte tarteko biztanlegoa kontuan izanik).

- Emakumezkoek jasotzen dituzten soldatak gizonezkoenak baino txikiagoak dira eta, ondorioz, emakumezkoen proportzio handiagoa dago aitortpena aurkezteko betebeharraren azpitik.

Guztira aitortutako lan etekin gordinak 12.127 milioi eurokoak izan dira, eta horietatik 4.913 milioi euro (%40,5) emakumezkoek aitortzen dituzte, eta beste 7.214 milioi euro (%59,5) gizonezkoek.

### 7 grafikoa. Aitortzaile kopurua eta laneko etekin gordinak




Beraz, eta grafikoa ikusten denez, emakumezkoek lan etekinak aitortzen dituztenen %46,8 dira, baina zenbatekoan portzentajea %40,5era jaisten da. Aldiz, gizonezkoak %53,2 dira eta lan etekin guztiaren %59,5 metatzen dute.

Emakumezkoek aitortutako batez bestekoa 27.219 eurokoa da, eta gizonezkoena 35.169 euro. Sexuen arteko arraila 7.950 eurotakoa da. Horrek adierazten du emakumezkoek gizonezkoek baino %22,6 gutxiago aitortzen dutela lan etekin bezala.

Emakumezkoek eta gizonezkoek jasotako soldaten arteko diferentzia hori azaldu daiteke, gutxienez partzialki bada ere, egindako lanaldi motagatik; izan ere, emakumezkoetan eragin handiagoa du enplegu prekarioak, behin-behinekoak, aldi baterakoak...


### 8 grafikoa. Lan etekin gordinaren batez bestekoak (eurotan)



Azken lau urteetako bilakaera aztertuta ikusten da emakumezkoen egoera zertxobait hobetu dela gizonezkoen portaeraren aldean.

Lan etekinak aitortzen dituzten aitortzaileen kopuru osoarekin gertatu den bezala, etekin mota hori aitortzen duten emakumezko kopurua igotzen joan da urtez urte: 2019ko 170.480tik 2020ko 172.016ra pasa zen. 2021. urtean 173.477ra igo zen eta 2022. urtean epealdiko kopururik handiena ematen da, 180.514. Guztira, lau urtekoan emakumezkoen %5,9 gehiagok aitortu dituzte lan etekinak. Gizonezkoak ere gora egin dute kopuruan aztertutako epealdian, igoera %3,0koa izan da. Badirudi, azken urteetako beherakadak eragin gutxiago izan duela emakumezkoen aldagai kuantitatiboetan.

### 9 grafikoa. Laneko etekinen aitortzaileen bilakaera 2019-2022



Aitortutako lan etekinen zenbatekoan goranzko joera ikusten da. Emakumezkoen kasuan, igoera hori handiagoa izan da, eta ondorioz adierazgarritasun pixka bat irabazi dute, 2019ko %39,0tik 2022ko %40,5era pasatuz; hau da, 1,5 puntu gehiago. Zenbateko hori bera galdu dute gizonezkoek, %61,0tik %59,5era pasa ondoren.

### 10 taula. Aitortutako lan etekin gordinen bilakaera 2019-2022 (milioi eurotan)

	2019	2020	2021	2022
Emakumezkoak	4.202	4.288	4.484	4.913
Gizonezkoak	6.570	6.590	6.734	7.214
<b>Guztira</b>	<b>10.772</b>	<b>10.878</b>	<b>11.218</b>	<b>12.127</b>
Emakumezkoak	39,0	39,4	40,0	40,5
Gizonezkoak	61,0	60,6	60,0	59,5
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Hori guztia kontuan hartuta, emakumezkoen batez bestekoa 24.648 eurotik 27.219 eurora pasa da azken lau urteetan (+%10,4). Gizonezkoena, berriz, pixka bat gutxiago igo da, 32.985 eurotik 35.169 eurora (+%6,6). Ondorioz, sexuen arteko arraila txikitu egin da portzentajearen eta baina ere zenbatekoan: 8.338 eurotik 7.950 eurora (%25,3tik %22,6ra).






### 11 taula. Lan etekin batez bestekoaren bilakaera 2019-2022 ( eurotan)

	2019	2020	2021	2022
Emakumezkoak	24.648	24.926	25.848	27.219
Gizonezkoak	32.985	32.938	33.593	35.169
<b>Arraila (euroak)</b>	<b>8.338</b>	<b>8.012</b>	<b>7.745</b>	<b>7.950</b>
<b>Arraila (%)</b>	<b>25,3</b>	<b>24,3</b>	<b>23,1</b>	<b>22,6</b>

Sexu bakoitzak aitortutako lan etekinak tarteen arabera sailkatzen baditugu, ondorengo grafikoan agertzen den banaketa ematen da:

### 10 grafikoa. Lan etekin gordinen aitortzaileen banaketa tarteka 2022an



## 12 taula. Lan etekinen aitortzaileen banaketa tarteka

Tarteak (eurotan)	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Portzentajea tarte bakoitzean	
			Emakumezkoak	Gizonezkoak
0 - 10.000	24.841	11.683	68,0	32,0
10.001 - 20.000	42.942	26.466	61,9	38,1
20.001 - 30.000	46.531	53.282	46,6	53,4
30.001 - 40.000	30.470	50.790	37,5	62,5
40.001 - 60.000	28.717	47.840	37,5	62,5
60.001 - 80.000	4.525	8.987	33,5	66,5
80.001 - 100.000	1.580	3.120	33,6	66,4
>100.000	908	2.952	23,5	76,5
<b>Guztira</b>	<b>180.514</b>	<b>205.120</b>	<b>46,8</b>	<b>53,2</b>

Lortzen diren emaitza nagusiak honakoak dira:

- 20.000 euroko lan etekinen tarteen azpitik beti emakumezko gehiago dago. Lehen tartean %68,0 emakumezkoa da, eta beste %32,0 gizonezkoa.
- Emakumezkoen metaketa handia ematen da beheko tartetan: 67.783 (%37,5) 20.000 euro azpitik jasotzen dutela aitortzen dute; maila horretan, berriz, gizonezkoen %18,6a bakarrik dago (38.149 zergadun).
- Soldata handiak gizonezkoenak dira nagusiki: 60.000 eurotik gora jasotzen duten 15.059 gizonezko dago, 7.013 emakumezkoen aldean.
- Azken tartean, 100.000 eurotik gorako lan etekinak, %76,5 gizonezkoak dira, eta %23,5 besterik ez emakumezkoak.




## 5.2. KAPITAL ETEKINAK

Hemen barruan sartzen dira bai oinarri orokorrean eta bai aurrezpenaren oinarrian aitortzen diren kapital higiezinaren etekinak, kapital higikorren etekinak, eta ondare irabazi eta galerak. Ondare irabazi eta galeren kasuan, kontuan hartzen dira baita emaitza negatibokoak ere, hau da, ekitaldiko oinarriaren barruan konputatzen ez direnak, eta etorkizuneko irabaziak konpentsatzeko gordetzen direnak.

2022an kapital etekinak 252.681 pertsonak aitortzen dituzte, eta horietatik 127.476 emakumezkoak dira (%50,4) eta beste 125.205 gizonezkoak (%49,6).

Aitortzaile kopuru osoa kontuan hartuta, guztien %55,6k aitortzen ditu kapital etekinak. Sexuaren arabera, aldea oso txikia da: emakumezkoen %56,4k aitortzen ditu kapital etekinak, eta gizonezkoen %54,9k.


### 11 grafikoa. Aitortzaile kopurua eta kapital etekinak



Guztira 1.391 milioi euro aitortu dira, eta emakumezkoek horren %46,9 metatzen dute, eta beste %53,1 gizonezkoek. Beraz, ikusi daitekeenez, nahiz eta sexuen arteko banaketa nahiko orekatua izan, gizonezkoek adierazgarritasun pixka bat irabazten dute.

Batez bestekoari dagokionez, emakumezkoena 5.116 eurokoa da eta gizonezkoena 5.899 eurokoa. Beraz, kasu honetan ere sexuen arteko arraila gizonezkoen aldekoa da (783 euro). Horrek adierazten du emakumezkoak gizonezkoak baino %13,3 gutxiago aitortzen dutela oinarri ezargari bezala.

### 12 grafikoa. Kapital etekinen batez bestekoak (eurotan)



Metodologiako erreten banaketa atalean aipatu den bezala, bi aitortzaile dauden batera aurkeztutako aitortenetan, kapitaleko errentak bakoitzari aitorpenean aitortutako %50a egozten zaio. Bestalde, banaka aitortu duten bikote gehienek (%80,3) adierazitako ondare erregimen ekonomikoa irabazpidezkoa izan da. Horrela, bi kasuetan, emakumezkoak aitortutako kapital etekina gizonezkoak aitortutakoaren berdina da. Beraz, batez bestekoan dagoen aldearen zati nagusia familia unitate batean ez dauden pertsonen aitorpeneetatik dator.


### 5.3. JARDUERA EKONOMIKOETAKO ETEKINAK

Jarduera ekonomikoetako etekinak 42.874 pertsonen aitortzen dituzte, eta horietatik 17.568 emakumezkoak dira (%41,0) eta beste 25.306 gizonezkoak (%59,0).

Aitortzaile kopuru osoa kontuan hartuta, guztien %9,4k aitortzen ditu jarduera ekonomikoetako etekinak. Sexuaren arabera, berriz, emakumezkoen %7,8k aitortzen ditu, eta gizonezkoen %11,1ek.


Guztira 706 milioi euro aitortu dira, eta emakumezkoek horren %36,2 metatzen dute, eta beste %63,8 gizonezkoek. Beraz, neurri txiki batean, banaketa gizonezkoen aldera joaten da.

### 13 grafikoa. Aitortzaile kopurua eta jarduera ekonomikoetako etekinak



Ondorioz, batez bestekoetan ere gizonezkoena handiagoa da: 17.797 euro, emakumezkoen 14.565 euroren aldean; arraila gizonezkoen aldekoa da (3.232 euro). Horrek adierazten du emakumezkoak gizonezkoak baino %18,2 gutxiago aitortzen dutela jarduera ekonomiko bezala.

### 14 grafikoa. Jarduera ekonomikoetako etekin batez bestekoak (eurotan)



#### 5.4. OINARRI EZARGARRIA


Orain arte aztertutako etekin desberdinen batuketak oinarri ezargaria ematen du. Hala ere, aztertutako etekin guztiak ez dira oinarrian ezartzen: jarduera ekonomikoaren eta ondare galerak.

Laneko etekin gordinaren kasuan, zerga araudian onartutako gastu eta hobariak kentzen zaizkio; esanguratsuenak dira langileak ordaindutako derrigorrezko Gizarte Segurantzako gastuak eta lan etekinak izateagatik PFEZn ezarritako hobaria (oro har, 3.000 eta 4.650 euro bitartekoa).

Gainera, oinarri ezargaria lortzeko beste etekin bat gehitzen zaio, bere pisu txikiagatik orain arte aztertu ez dena: errenta egozpenak (Interes Ekonomikoko Taldeak, Enpresen Aldi Baterako Batasunak, eta Nazioarteko Gardentasun Fiskala eta paradisu fiskaletan eratutako Inbertsio Kolektiboko Erakundeak).


Txostenaren hasieran ikusi dugun bezala, aitortzaile guztien %49,8 emakumezkoa da; eta beraiek, oinarri ezargari osoaren %40,5 aitortzen dute (5.167 milioi euro). Gizonezkoak, berriz, aitortzaile guztien %50,2 izanda, oinarri ezargari osoaren %59,5 metatzen dute (7.581 milioi euro).

### 15 grafikoa. Aitortzaile kopurua eta oinarri ezargarria



Emakumezkoen oinarri ezargarriaren batez bestekoa 22.861 eurokoa da, eta gizonezkoena 33.231 euro. Sexuen arteko arraila 10.370 eurokoa da. Horrek adierazten du emakumezkoak gizonezkoak baino %31,2 gutxiago aitortzen dutela oinarri ezargarri bezala.


### 16 grafikoa. Oinarri ezargarriaren batez bestekoak (eurotan)



Ekitaldian aitortutako oinarri ezargarria nola osatzen den aztertuta, ikusten da egitura, oro har, nahiko antzekoa dela emakumezkoen eta gizonezkoen artean.

Horrela, errenta iturri nagusia lan etekinak dira bi kasuetan: emakumezkoetan errenta osoaren %80,1 dira, eta zerbait gehiago gizonezkoetan (%82,8).

### 17 grafikoa. Errenta iturrien banaketa



Ondoren kapital etekinak datoz, eta ikusi dugun bezala, hor sexuen arteko arraila gizonezkoen aldekoa da, nahiz eta 2015. urte arte emakumezkoen aldekoa izan zen. Baina errenta iturrien egituran, emakumezkoek metatzen duten portzentajea gizonezkoena baino handiago da: %14,8 eta %11,2 hurrenez hurren.

Azkenik, jarduera ekonomikoetako etekinak emakumezkoek aitortutako errenta osoaren %5,0 dira, eta gizonezkoek aitortutakoaren %6,0.

### 13 taula. Aitortutako etekinak eta oinarri ezargaria

	Laneko etekin garbiak	Kapitalaren etekinak	Jarduera ekonomikoetako etekinak	Errenta egozpenak	Oinarri ezargaria
<u>Guztira</u>					
Emakumezkoak	4.140.584.572	766.302.973	260.386.742	219.784	5.167.494.070
Gizonezkoak	6.277.467.442	845.772.232	457.276.924	230.386	7.580.746.985
<b>Guztira</b>	<b>10.418.052.013</b>	<b>1.612.075.205</b>	<b>717.663.666</b>	<b>450.170</b>	<b>12.748.241.055</b>
<u>Portzentajea</u>					
Emakumezkoak	39,7	47,5	36,3	48,8	40,5
Gizonezkoak	60,3	52,5	63,7	51,2	59,5
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
<u>Batez beste</u>					
Emakumezkoak	24.432	6.666	16.162	1.528	20.554
Gizonezkoak	31.938	7.473	18.954	1.368	30.610
<b>Guztira</b>	<b>28.463</b>	<b>7.067</b>	<b>17.836</b>	<b>1.424</b>	<b>25.618</b>

Zenbatekoak eurotan



## 6. ORDAINDUTAKO ZERGA


Atal honetan sexu bakoitzak PFEZgatik zenbat ordaintzen duen (zergaren kuota likidoa) azaldu nahi da. Banaka aurkeztutako aitortpenetan ez dago inolako arazorik ezagutzeko nor den zerga ordaintzen duena; ezta aitortzaile bakarreko baterako aitortpenetan ere.

Arazoa dago bi aitortzaile dauden baterako aitortpenetan. PFEZ progresiboa denez, ezinezkoa da errenten banaketa egin, bakoitzaren kuota likido "berria" kalkulatu, eta horren emaitza benetan ordaindutakoaren berdina izatea. Horregatik, hartu den erabakia izan da kasu horietan ordaindutako kuota likidoa bi aitortzaileen artean banatzea, beraiek aitortutako errenten proportzio berdinean. Esaterako, baterako aitorten batean emakumezkoak errenta osoen %60 metatzen badu, berari dagokio ordaindutako kuota likidoaren %60a. Eta gizonezkoari beste %40.

PFEZren likidazio prozedura dela-eta, gerta daiteke aitorten batean kuota likidoa zero izatea; horrek esan nahi du, zergadun horrek ez duela ezer ordaintzen PFEZgatik; eta ekitaldian zehar atxikipenak jasan baditu edota konturako ordainketak egin baditu, zenbateko hori itzuli egiten zaiola.

2022 ekitaldiko 454.159 aitortzaileetatik %78,5ek (356.634) zerbait ordaintzen du PFEZgatik. Beste 97.525ek kuota likidoa zero dute; eta horietatik 60.300 (%64,9) emakumezkoak dira eta 34.225 (%35,1) gizonezkoak.


### 18 grafikoa. Aitortzaile kopurua kuota likidoaren arabera





2022an PFEZren kuota likidoa osoa 2.253 milioi euro izan da. Eta emakumezkoek zenbateko horren %37,8 ordaintzen dute (852 milioi euro) eta gizonezkoek beste %62,2 (1.400 milioi euro).


### 19 grafikoa. Kuota likidoa



Aitortzaileen kopuruari dagokionez, berriz, kuota likido positiboa 162.739 emakumezkoek aitortzen dute (%45,6) eta 193.895 gizonezkoek (%54,4).

Emakumezkoak batez beste 5.238 euro ordaintzen ditu PFEZgatik, eta gizonezkoak, berriz, 7.222 euro.

### 20 grafikoa. Kuota likidoaren batez bestekoa (eurotan)





## 7. AITORTZAILEAREN ARGAZKIA FISKALA

Orain arte ikusi ditugun aldagaiak kontuan hartuta, Gipuzkoako PFEZren aitortzailearen argazki fiskala atera dezakegu, eta sexuen artean dauden diferentziak ikusi.

- Sexuaren arabera, aitortzailea emakumezkoa nahiz gizonezkoa izan daiteke. Banaketa orekatua da (%49,8-%50,2).
- Gehiengo nagusia (%57,0) ezkondua dago, bai emakumezkoen kasuan (%56,3) eta bai gizonezkoetan (%57,6). Alargunen kasuan, emakumezkoak (20.479) gizonezkoak (5.728) baino ia-ia lau aldiz gehiago dira.
- Adinari dagokionez emakumezko aitortzailearen batez bestekoa 55 urte dira, eta gizonezkoena 54 urte.
- Emakumezkoen lan etekin gordinaren batez bestekoa 27.219 euro dira; eta gizonezkoena 35.169 euro, hau da, emakumeak 7.950 euro gutxiagoa (-%22,6).

### 14 taula. Datuen laburpena

Kontzeptua	Emakumezkoa	Gizonezkoa	Arraila
Egoera zibila	ezkondua	ezkondua	-
Adina (urteak)	55	54	1
Errenta iturria nagusia	lana (%80,1)	lana (%82,8)	-2,7 puntu
Lan etekin gordinak (batez beste)	27.219	35.169	-7.950    -%22,6
Kapital etekin gordinak (batez beste)	5.116	5.899	-783    -%13,3
Jarduera etekin gordinak (batez beste)	14.565	17.797	-3.232    -%18,2
Oinarri ezargarrria (batez beste)	22.861	33.231	-10.370    -%31,2
Ordaindutako zerga (%)	37,8%	62,2%	-24,4 puntu
Ordaindutako zerga (batez beste)	5.238	7.222	-1.984    -%27,5

Zenbatekoak eurotan

- Kapital etekin gordinaren batez bestekoa ere handiagoa da gizonezkoetan (5.899 euro) emakumezkoetan baino (5.116 euro); hau da, 783 euro gutxiago aitortzen dute emakumeak (-%13,3).

- Emakumezkoek 14.565 euro aitortzen dute batez beste jarduera ekonomikoetako etekin gordin bezala; gizonezkoek, berriz, 17.797 euro. Arraila 3.232 eurokoa da (-%18,2).
- Oinarri ezargariaren batez bestekoa 22.861 euro dira emakumezkoen kasuan; eta 33.232 euro gizonezkoena, hau da, 10.370 euro txikiagoa (-%31,2).
- Errenta iturri nagusia lan etekina da, bai emakumezkoentzat (%80,1) eta bai gizonezkoentzat (%82,8).
- PFEZgatik emakumezkoak 5.238 euro ordaintzen dute batez beste, eta gizonezkoak 7.222 euro. Hau da, emakumezkoek batez beste 1.984 euro gutxiago ordaintzen dute (-%27,5).